

PELLO TELLERIA jna.
EUSKALTZAINDIKO ERAGILE TEKNIKARIA

Gasteizen, 2000ko urtarrilaren 25ean.

Zure kontsulta bat jaso dugu *Data nola adierazi* arauari buruzkoa. Aipatzen diguzu Euskaltzaindiaren 37. arau horretan data nola adieraz daitekeen azaldu ondoren, arauaren bukaeran bertan data ematerakoan, goian adierazitako egiturak erabili beharrean *-garren* atzizkiaren ordezkotako puntuaren bidez ematen duela Euskaltzaindiak. Galdera bat baino gehiago iritsi omen dira Euskaltzaindira bitasun horren inguruan, eta puntu hori, ahal dela, argitu dezagun eskatzen diguzu.

Inkoherentziak inkoherentzia, batzordeak erabaki du ezin dela *-garren*-en erabilera gaitzetsi, tradizioan erabili izan den egitura denez gero. Arauan ere ez da gaitzesten, nahiz eta han bestelako eredu eman:

Durango, 1995eko martxoaren 7an
edo

Durango, 1995eko martxoaren 7a

Nolanahi ere, iruditzen zaigu arauan bertan jasotzen dena dela errespetatu beharrekoa (goiko bi egitura horiek, alegia); horretaz gain, Euskaltzaindia saiatu beharko litzateke aurrerantzean ez egiten 37. arauan egin den inkoherentzia bezalakorik.

Zure eskaerari erantzun egokia eman diogulakoan, hurrengo batera arte.

Jesus Mari Makatzaga,
Gramatika batzordeko idazkaria